

# tipi tapa

2001eko uztailak 26 • XXI. urtea



**Bixente Maritzular Sarako gozogilea** 03


Duela hiru urte Euskal Pastizaren Museoa zabaldu zuen Harana baserrian eta orai Eguzkia kalitateko euskal pastizaren elkartean sartu da Bixente.



**Txarutakoak berriz txapeldun** 29

Gan den urtean bezalaxe, Baztan eta Malerrekako pilotariak biltzen dituen Txaruta taldeak Nafarroako Herriarteko pilota txapelketa irabazi du.

## 04 Amaiur Alfaro: Senperetik munduan gaindi bere itsasontzian



# MUEBLES METS

Sarrera BERATik da

Alkaiagako industrialdean

Sastrin karrika, 3.2 - 3.4

31789 LESAKA

Tfnoa. 948 630 537

Fax. 948 631 443

*Larunbat arratsaldetan irekia*



*Izugarrizko  
eskaintza zahar  
itxurako mobletan*

DATUAK...

- Duela hiru urte Saran Euskal Pastisaren Museoa zabaldu zuen Bixente Maritxularrek Haranea etxean. Orain urrats berri bat eman nahirik bertze 15 gozogilekin batera EGUZKIA, kalitateko euskal pastelaren elkarte osatu du. Kalitateko artisau pastela bultzatzea dute helburu.
- EGUZKIA elkartean ere Sarako Arraia hoteleko Jean Fagoaga eta Azkaingo Goxobateko Battitt Inda gozogileek parte hartzen dute. Hegoaldekoek ere eska dezakete elkartean sartzea.



Bixente MARITXULAR Sarako gozogilea

RAKEL GOÑI

# «Euskal pastizaren kalitatea segurtatu nahi dugu»

Rakel GOÑI

## Zer da "Eguzkia"?

Euskal Pastela egiten dugun 16 gozogileren elkarte da. Kalitateko produktua egin nahi dugu, geure arbasoek egiten zuten modukora gehien hurbiltzeko. Honetarako ingredienteak ere naturalak behar dute. Errezeta orokor bat dago eta egiteko hagitza erraza bada ere, gozogile bakoitzaren pastela desberdina da. Masak, egosteko denborak edo produktuen kantitateak eragina du azken emaitzan.

## Zer dela eta sortzen da "Eguzkia" osatzeko beharra?

Lan honetan urte andana bat eraman dugunak konturatu ginen Euskal Pastela izenarekin edozein gauza saltzen zela. Artisau eran egindako pastekek ez zuten merezi zuten onarpena. Bazen ere modu industrialean pastelak egin eta artisau eran egindakoak balira bezala saltzen zituena. Guzti hau nolabait konpondu nahi genuen eta 5 urte eman ditugu Eguzkia elkartearen proiektu-

## «Ez dago Euskal Pastela egiteko sekreturik. Ingredienteak noiz bota jakin behar da»

tua garatzen. Azkenean duela 3 hilabete abian jarri dugu elkarte.

## Iparraldeko gozogileak zaudete elkartean, hegoaldekoak sar daitezke?

Noski baietz. Araubatzuk ditugu eta horiek bete beharko lituzke eskatzaileak. Lehenik jadanik elkartean dauden bi gozogileen babes beharko du. Ondotik "Jakintsuen Kontseiluak" Euskal Pastelak dastatuko ditu eta azkenik bere egoitza, la-bea, oro har lantokia legediaren barnean dagoen ala ez ikuskatuko da.

## Noiztik dago zabalik Sarako Euskal Pastisaren Museoa?

3 urte bete ditugu eta kontent gaudu jendearen erantzunarekin. Bisita gidatuak egiten ditugu eta lehenik jendea zuzenean sukaldaria era-

maten dugu dastaketak egiteko. Euskal Pastelak dituen ingredienteak dastatzera gonbidatzen ditugu, azukrea, irina, pasta bera, jakin dezaten zein den Euskal Pastelaren funtsa. Ondotik museoa ikustera eramanen ditugu eta euskal gozogintzaren historia azaltzen diegu. Bitartean gozogintzan erabiltzen ziren tresna zaharrak ikusteko aukera dute. Lehenagoko euskal sukaldaria murgiltzen dira bisitariak.

## Zein da Euskal Pastel ona egiteko sekretua?

Sekretua da, sekreturik ez dagoela. Bisitariari erraten diegu errezeta erraza dela: 200gr gurin, 200gr azukre kristalizatu, 5gr gatz, 4gorringo eta bi arraultze, 400gr irin eta goilaratxo bat legamia. Barnea betetzeko gozogile krema edo gerezi marmelada ematen ahal zaio. Ingredienteak noiz bota ikasi behar da bakarrik. Eguzkia elkarte osatu genuenean bakoitzak errezeta bera erabiliz gure Euskal Pastiza egin genuen, orduan guztiak zapore ezberdinaz utelakonturatu ginen!



Herri ttikiak gustoko zituen eta horrek eraman zuen Senperen bizitzera, pozak eta tristurak ematen dizkion itsasotik hurbil. Belan lehiaketetan hastea oso zaila izan zen Amaiur Alfarorentzat. Kirol hau oso garestia da eta ezaguna egin zen arte oso zaila egin zitzaion Amaiurri laguntza ekonomikoak lortzea. Abuztuan urteko helbururik nagusia hasiko du marinel senperrak La Solitaire du Figaro lehiaketa. 5 etapa betetzen ia hilabete bat emanen du Amaiur Alfarok.

Testua: Rakel Gofi

Argazkiak: Asier Gogortza

# Amaiur Alfaro Senpereko marinel trebea

Baianan sortu zen Amaiur Alfaro 29 urteko gaztea eta herri ttikiak maite zituenez Senperera joan zen bizitzera. Gurasoak barnealdekoak ditu, Aldude eta Urepelekoak, eta beraiei esker belaren munduan 7-8 urte zituela hasi zen udako aktibitate bezala. Horrela, 17 urte zituen arte, orduan bela irakasle-laguntzaile izatea proposatu zioten, eta jadanik 12 urte daramatza lan honetan. Diplomak pasatu ditu eta azken titulua jaso ondotik lehiaketaren mundua eza-gutu du. Honek bere barnean garra sortu du eta urte osoa darama honetan murgilduta buru belarri. Taldekako txapelketetan hasi zen, bikoteka segitu, eta orain bakarka ari da.

## FIGARO KLASEA

Txalupa ainitz badira lehiaketa munduan baina Amaiur Alfaro Figaro motako barkuan dabil, lehiaketetan denek barku berdina eramaten dute eta marinelaren trebeziak garrantzi handia du. Laguntza ekonomiko handirik ez duenez, bera da

prestatzaile, marinel, eta gainontzeko lan guztiak egiten dituena. «Kirol oso garestia hautatu dut hori segur, nire kontu jarri aitzin diru gabe egin nezakeen, astebururo lehiaketak badirelako bai hemen inguruan, baita Britainian ere, eta txalupetan beti badute jendearen beharra». Ikasten luzaz ibili da baina ez zioten uzten erresponsabilitaterik hartzen, ezzuen taktikarik erabakitzen ahal. «Erraiten ahal duzu, parte hartzen ahal duzu, baina zure iritzia ez dute balio handirik. Bertalde, gauzak zuk erabakitzen dituzunean zerbaitere gaizki ateratzen bada, ikasten duzu zergatik gertatzen den». Amaiurantz zailena hastapen hori izan zen. Emaizta egokiak ateratzen zituela frogatu behar zuen bere lanaren zati handi bat dirua lortzea baita.

## LAGUNTZA EKONOMIKOA

Aniztan Amaiur Alfarok enpresetara jo du esponsoring gisako partaidetza lortzera, baina hasieran ezezaguna zenez zaila zitzaion horrelako laguntzarik er-

diestea. «Emeki emeki, gero eta errazagoa da batez ere emaitza onekin. Nire ametsen artean etorkizunean hone-taz bizitzea da». Hiru urte egin ditu lehia-





ketetan dabilela eta denetarik egin du dirua lortzeko, t-shirtak edo kamisetak saldu, lagunekin bestak antolatu... Ekain hasieran Uhartz enpresa sortu zuen, belaren munduan egin apostuasendoagoa izateko. Laguntzaile nagusien artean honako hauek ditu: Hendaiako «Sokoa», Mauleko «Artzainak», ANPA Frantziako Alkoholismoaren Kontrako Elkartea eta Arrosako «Gurea Mobleak». Aitzineko urtean Donibane Lohitzune eta Baionako hiriek ere laguntza eman zioten. «Aurten Senpereko Herriko Etxeak zerbait ematea espero dut» dio.

### BAKARDADEA

«Jendeak uste du lehiaketa luzea dela baina haren barnean hartua zirenean ez zara batera aspertzen». Hastapenean barkuak aski urrun joaiten zitzaizkiola aitortu du marinela senperrak eta bistatik gal-

tzen zituen aski fite. Hor hasten ziren aintz galderra, aski goiz iritsiko zen, lehenak eman zuten denboraren ehuneko 30a lortuko zuen eta abar. Bere kezkarik handiena hori zen, haizea kontrabazuen, haizeazkarra, itsaso zakarra bazegoen, eskuin ezker johan behar zuen. Hor aintz sufritu zuen, fisikoki batez ere. Jatea behar-beharrezkoa da eta auzintan hain kontzentratua dago Amaiur bere lanean, jatea ere ahazten zaiola eta hori hagitz arriskutsua da. «Memento batzuk denentzat berdinarak dira: haizea ez delarik. Hori da marinelen buruarentzat zailena, belek jotzen dute, kristoren zarata egiten dute barkuan eta zainetarik jartzen zara fite. Hori da Kortsikara joatean gertatu zaiquina. Gurasoentzat ez da batera erreza izan ez zutelako mundu hau ezagutzen baina orain nigan sinisten dute».

Amaiur Alfaroren hurrengo helburua *La Solitaire du Figaro* lehiaketan parte hartzea izanen da abuztuaren 3tik irailaren 1era. Froga gogor hau 5 etapatan banatuko da. Irteera La Rochellen izanen da (Fr) eta handik, Gijon (Esp), Saint Quay Portieux (Fr) Dingle (Irl) eta Hendaiatik igaroko da. Fisikoki oso prestatua egon behar du marinela denetara 1.744 milia nautiko edo 3.229 kilometro inguru egiteko egunero. 1980an sortu zen bakarkako lehiaketa honetan indar fisikoa beharrezkoa bada ere, indar psikikoa bete betean eduki behar dituzte lehiakideek, gogoak ez galtzeko. Ordu aintz dira itsasoaren bakardadean, txalupa tiki batean. Hori dela eta, marinelen kuraia azpimarratzeko da. Aurten inoiz egin den etaparik luzeena egin beharko dute marinelek, azkenekoa izanen da. 649 milia izanen ditu eta aipatu bezala Irlandako hego mendebaldetik, Euskal Herriko iparraldera, Hendaiara iritsi arte.

### FIGARO KLASEA

Figaro izeneko txalupa dute lehiakide guztiek eta denak antzerakoak dira, 9.14 metro luze, 3.20 metro zabal eta 2.6 tona pisatzen dute. Amaiurren figaroak 7 milioi pezeta/300.000 libera balio du eta kantitate honi lehiaketan, entrenamenduetan eta bertze hainbertze gauzetan gastatzen dena gehitu behar zaio. Belak ere garrantzi handia dute, haizearen indarra hartzeko. Figaroek oro har dituzten belek 115m<sup>2</sup> eta 60 m<sup>2</sup> dituzte. Ez da hau Amaiurrek parte hartuko duen lehiaketa bakarra. Orain arte bertzeak bertze *Spi Ouest Francen*, Frantziako Lehiaketan eta *Transat AGRn* egon da. Geroztik, behar den esperientzia lortuta, *La Solitaire du Figaro* lehiaketan bere lana finkatzea erabaki du aurten eta hurrengo urtean.

### INFORMAZIO ZUZENA

Lehiaketa hasi bezain fite informazioa izanen da [www.sextan.com](http://www.sextan.com) web orrialdean.

## EUSKAL MARINELAK

Euskal Herrian aspaldi arrantzatik bizi zen jendea eta motorerik ez zegoenean, belautzietan ibilki ziren. Hori dela eta, euskaldunak marinela handiak izan dira beti. Iparraldeko bilingoekin izugarriko harremanak izan zituzten. Gauregungo itsasontzi aintz ere bilingoekin barkuen itxura dute, hemengo itsasoetara moldatuak noski. «Badakite euskal marinela izigarri famatuak izan direla munduan zehar haien eza-

gutzengatik eta balea arrantzatzeko erarengatik, gero azken mende honetan, motorrak sortu ziren eta geroztik marinelek ez dute gehiago belarik erabili». Ikerketak egin ditu euskal marinelen hiztegi aberatsa berreskuratzeko. Aski zaharra izanik pixkanaka galtzen ari da. Belautziak ere aintz aldatu dira eta horrekin hizkuntza ere, hitz batzuk orain ez dira erabiltzen. «Orain ari da berriz ere zerbait sortzen, Didier Mundutegik adibidez horretarako lan egiten du. Pascal Bidegorri izan zen iaz *La Solitaire du Figaro* irabazi zuena. Beraz Euskal Herrian belaren munduan ari da zerbait mugitzen». Kirol hau gero eta garatuagoa dago, portuak eraikitzen dira eta hemendik urte batzuetara marinela gehiago egon den dira eta euskaraz hitzegiteko aukera izanen da itsasoan. «Plazer handiarekin hitzegiten dut euskaraz, itsasoan beti badut euskal musika eta haizerik ez dagoenean, tira! kantuz hasten naiz eta horrek lasaitzen nau, herrira ekartzen du izpiritua eta aintzina segitzeko kuraia ematen du» akitu du Amaiur Alfarok.



ARTXIBOA

Lege Gordailua: NA-1324/85  
 Frankeo Itundua: 34/79  
 Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria  
 Herriko Etxeko Plaza, 1  
 E-31780 BERA (Nafarroa)  
 Tfnoa: (+34) 948 63 11 88  
 Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com/ttapi-ttapa  
 ttapi-ttapa@topagunea.com

**Jabea:** ttipi-ttapa fundazioa. **Pre-  
 sidentea:** Pello Apeztxea. **Kudea-  
 tzailea:** Joxemanuel Irigoien. **Zuzen-  
 daria:** Aitor Arotzena. **Publizitatea:**  
 Kulturkari, S.L. **Administrazioa:** Amaia  
 Goia. **Erredakzioa:** Aitor Arotzena,  
 Asier Gogortza, Rakel Goñi. **Berri-  
 emaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban  
 Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi  
 Klaber, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jaio-  
 ne Otxandorena, Alba Fernandez,  
 Franck Dolosor, Margari Etxenike, Ko-  
 ro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana  
 Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Eli-  
 xabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar  
 Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea  
 Mitxelorena, Aitor Arotzena, Asier Go-  
 gortza, Rakel Goñi.

**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa,  
 Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsu-  
 mitzaileen Antolaketa...

**Inprimategia:** Gertu. **Erakunde La-  
 guntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta,  
 Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta  
 Sarako udalak, Zugarramurdiko Ake-  
 larre elkarteak, Bortzirietako Euskara  
 Mankomunitatea, Malerrekako Zer-  
 bitzu Mankomunitatea, Zugarra-  
 murdiko Akelarre Elkarteak...

**Harpidetza sariak:**

Hego Euskal Herria	2.400 Pta.
Ipar Euskal Herria	180 Libera
Europa	4.600 Pta.
Amerika	16.500 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako  
 Gobernuaren laguntza jaso du

• GAURKOTASUNEN GAIA •

## Hildakoak etxeetan beilatzea



Josetxo Susperregi *Iratxe funerariaren kidea*

### Etxebizitza aunitzan ez dago hildakoak edukitzeko eta kontserbatzeko toki egokirik

Nafarroako Funerarien Elkarteak zegoen legea berritzea eskatu zion Osasun Sailari. Zergatiak ugar-  
 riak dira. Batetik osasunaren gaia dago, gaur egun etxebizitza askotan ez daude hildakoak eduki-  
 tzeko eta kontserbatzeko toki egokirik. Temperatura egokia behar da gorpuak usteltzen ez hasteko.  
 Gaur egun medikuek ematen dituzten tratamenduek ere ustelketa lasterrago gertatzea egiten dute.  
 Bertzalde, etxebizitzak aunitz aldatu dira azken urteotan eta tokia gero eta urriago da gehienetan  
 hil kutxa bat edukitzeko. Funerarien Elkarteak ikusten zuen bigarren arazo nagusia, legez kanpo lan  
 egiten dutenen afera da. Oraindik bada Nafarroan zenbait zurgin hil kutxak egiten dituztela legetik  
 at, edo kutxak garraiatzen dituztenak edozein ibilgailutan, furgonetetan, kotxe partikularretan eta  
 abar. Guzti hau baztertu nahi da eta zerbitzua emateko eskatzen diren betebeharrak guztiak betetzea  
 lortu nahi da. Beilatokiak beharrezkoak dira batez ere 2.000 pertsonatik goiti bizi diren herrietan, bai-  
 na zerbitzua hautazkoa izan behar du eta ez behartua. Gure eskualdean argi dago 30 kilometrota-  
 ra hildakoa eramatea ez dela beti egokiena familiarentzat. Puntu hau proposamen bat izan zen, inoiz  
 ez inposaketa bat. Legearen aldetik hutsune handiak zeuden komunitate batetik bertzerara, Errioxan  
 eskatzen zena Nafarroan ez zuen balio eta Gipuzkoan adibidez, paper ezberdinak aurkeztu behar  
 ziren. Guztia bateratzea izan da Elkartearen helburua.

Beilatokiak gauza on ugari ekarri dituzte gure herrietara. Zerbitzua eskatzen duten familiak beilato-  
 kian jasotzen dituzte bisitak, eta gero, etxera joan daitezke deskantsatzera. Bertzalde hemen ez da-  
 go desberdintasunik aberats eta hainbeste diru ez dutenen artean. Gela guztiak berdinak dira guz-  
 tientzat. Argi dago kultur aldaketa baten barnean sartuak gaudela baina nik uste dut jadanik %90ek  
 zerbitzu hau eskatzen dutela.



Leon Labaien *Azkaingo apez*

### Hegoaldean legea aldatzen bada segur diru kontuengatik dela

Iparraldean nahi duenak hildakoa bere etxean  
 atxekitzen ahal du gau beila egiteko edo nahi  
 izanez gero funerarium-etara (beilatokiatar) eraman dezake. Halere Azkain bezalako herri  
 ttipietan gehienak etxeetan ukaitea nahigo du-  
 te, auzoak heldu direlako, familikoak ere eta  
 denen artean otoitza egiten dute, baita tarteka  
 zerbait ere jatera biltzen dira.

Ez dut uste gure eskualdean hildakoak funera-  
 ruim-etan atxekitzera behartuko gaituztenik. He-  
 goaldean hala egiten badute segur diru kon-  
 tuengatik dela. Hemendik hurbil gero eta kre-  
 matorium edo labe gehiago jartzen ari dira, di-  
 ruak gero eta gehiago agintzen du huntan ere.  
 Azkaindarren bat herritik kanpo hilez gero Do-  
 nibane Lohitzunen atxekitzen dute, baina her-  
 rian bertan bizi bada hemen uzten dute bere  
 etxean. Hemen meza sariak ere biltzen dira eta  
 guk gehienez 4 meza ematen dizkiegu, gai-  
 nontzeko dirua Belok edo Lazkaoko komen-  
 tuetara igortzen dugu fraideek ere bizi ahal izai-  
 teko.



Mateo Lertxundi *beilatokiaren jabea*

### Hemen aunitzek hildakoa etxean beilatzea nahiago izaten dute

Ez zait batere ongi iruditzen adibidez Zugarra-  
 murdin hildako pertsona bat Elizondora beila-  
 tokira ekartzera behartzea. Halako lege propo-  
 samena egin zion Nafarroako Funerarien El-  
 karteak Gobernuko Osasun Sailari. Hain zuzen  
 ere hildakoaren herritik 30 kilometrotara beila-  
 tokia bazegoen gorpua harat eraman beharra.  
 Lege hau, batetik gure ohituren aurka doaiela  
 uste dut, hemen aunitzek hildakoa etxean bei-  
 latzea nahi izaten dutelako. Bertzalde ekono-  
 mikoki ere gastu handia suposatzen du gorpua  
 dagoen herrira joan beharra, agian han lo egi-  
 tera gelditu behar baita. Badakit nire negozio-  
 aren aurka ari naizela baina nahiago dut jen-  
 dearen nahia errespetatzea. Baztango Udalari  
 eskatu nion lege proposamen honen aurka egin  
 zezan eta baietza eman zidaten. Osasun sai-  
 latik ere erran didate legea ez dela aitzinet ate-  
 rako, baina hala ez bada nik ere legea erres-  
 petatu beharko dut. Askorentzat maite duten  
 pertsona hori etxetik kanpo beilatzea gogorra  
 da, jendearengan ere pentsatu behar da.

• IRAKURLEAK MINTZO •

**Bortzirietako Euskara Mankomunidadearen oharra**

Nafarroako Gobernuak irailaren 5eko 154/1994 Foru Dekretuaren bitartez eremu euskalduneari Osasunbidetako plantila organikoaren zein lanpostutan behar den euskaraz jakitea zehaztu zuen. Gainerako lanpostuetarako euskara merezimendu berezia izanen dela ere ezarri zuen.

Joan den ekainaren 4ko osoko bilkuran, aldiz, Nafarroako Gobernuak arau horiek aldatzea erabaki zuen, abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretua, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duena, aplikatu nahirik. Hala, hemendik aitzinera eremu euskalduneari euskaraz merezimendua gisa zuen balorazio berriazkoa kendu egin du eta euskara bertze merezimendua bat izanen da, Europako Batasuneko gainerako hizkuntzekin batera puntuatuko dena. Gertaera honen aitzinean, Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak zera adierazi nahi du:

1. Nafarroako Gobernuaren neurri berri hauek azken urte honetan euskararen eta euskaldunon aurka gauzatzen ari den etengabeko eraso planifikatuaren barne kokatzen ditugu. Hori dela eta Gobernuari adierazi nahi diogu bere jarrera onartezina iruditzen zaigula, herritarren zerbitzura egon beharrean eta bereneska ereierantzun beharrean, behin eta berriz bizkarra ematen ari zaigulako.

2. Gobernutik eta komunitatearen baitatik anizteta tranpa egin nahi izan digute, alegia, mediku onaren eta euskaldunaren artean aukeratu beharra. Aitzitik, zera aldarrikatu nahi dugu: mediku ona izanen da medikuntza alorra menperatzeaz gain, herritarrei behar bezalako zerbitzua emateko gai dena, hau da, bertzeak bertze, bertakoen hizkuntzan, euskaraz, harrera egiteko gai dena. Hori dela eta berretsi nahi dugu euskara baloratzea ez dela nahikoa eta euskaraz jakiteak osasun alorreko lanpostu guztietarako nahitaezko baldintza izan behar duela.

3. Anizteta entzun dugu Nafarroako Gobernuaren ahotik, euskaraz jakitea baldintza izatea euskaraz ez dakitenak diskriminatzea dela. Gure ustez, neurri berri hauekin herritar guztiak gara diskriminatuta, legezofiziala den hizkuntza ezin dugulako administrazioarekiko harremanean erabili. 1986ko Euskararen Legeak 10.1 artikuluan dioena bete dezan exijitu nahi diogu Nafarroako Gobernuari. Hots: "hitar guztiak, Administrazio Publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelera erabiltzeko eta hautatutako hizkuntza ofizialean harrengizateko eskubidea dute. Horretarako eta eskubide honen mailaz mailako erabilpena bermatzeko, neurri egokiak hartuko ditu eta beharrezko gerta daitezkeen bitartekoak erabakiko". Lehen ere osasun alorrean nahiz bertzelakoetan Nafarroako Gobernuak euskaldunoi aitortu zaigun eskubide honi behin baino gehiagotan muzin egin dio eta arau aldaketa berri hauek ere bide bereetik jarraitzeko asmoa duela adierazten digute. Onartezina da, diskriminazioaren izenean, banakakoen eskubideak herritarren eskubideen gainetik jartzea.

4. Onartezina ere, gure herrietan zerbitzua ematen duten osasun alorreko langileei (medikuei, erizainei zein bertzelakoei) berdintsu baloratzea euskaraz jakitea ala ingelesa, frantsesa edo alemanierakitea; onartezina, halaber, oposaketa-lehiaketa batean euskaraz jakiteari 2,2 puntu ematea eta aipatu hizkuntza horiek jakiteari 2 puntu ematea, inola ere kontuan hartu gabe hemengo herrietan euskaraz dakiten herritarren kopuruak %70etik hasi eta %99 bitartekoak direla.

5. Gure iritzia agintariei zein gizarteari jakinarazteko, idatzi hau honako hauei bidaliko diegu:

- Miguel Sanz, Nafarroako Gobernuko Lehendakariari

- Santiago Cervera, Osasunbidetako Kontseilariari.

- Komunikabideei

- Bortzirietako Udalei eta inguruko Euskara Zerbitzuei, idatzia osoko bilkuretan aztertu eta onetsi dezaten.

**Bortzirietako Euskara Mankomunidadeko Batzorde Erabakikorraren izenean, Joxe Ramon Amoros lehendakaria.**

**Zabor bilketa berezituaz**

Nik, ez bazaizue gaizki iduritzen, adierazi nahi dut gauz bat. Aprobestu nahi dut nola atera den bi orri, kontenedorearen kontuz. Neri iduritzen zait denak mentalizatu behar dugula geure eta bakoitzaren onez. Berexi behar dugula zaborrak lau poltsatara edo hiru poltsatara eta kaja batera, paperaren kontuan. Ba5 normalean edukitzen da fregadera azpian, hori useltzen den gauza... Eta besteak garbiak baidira, baten plastikoa, brika eta metala, bestean kristala eta bestean papera edo kartoiak. Ez da batera zaila, sukalde edo sukalde ondoan edukitzeko. Nik uste denak irabaziko dugula. Esker mila. Eta barkatu erruak eta molestiak. Agurrak.

**Maria Jose OTXANDORENA**


**Oharra**

306. aleko erreportaiko argazkiak eta Elizondoko bestetako gehigarriak Foto Mena eta Foto Zalduak utzitakoak ziren.

ttipi-ttapa Fundazioa

**OKANE**  
**HARATEGIA • URDAITEGIA**  
 Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

**ttipi ttapa**  
**Zure publizitatea 7.000 etxetan sartuko da**  
**☎ 948 631188**

Zure inguruak klase guztiko insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xaguboz garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.  
**Termita eta Polillen kontrako tratamendua**  
  
 ☎ 948630155  
**BERA**

**SAROB**  
**okindegia**   
**SANDERS Pentsuak**  
 Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

**Alberto RETEGI**  
**abokatua**  
 Altzate 17  
 BERA  
 ☎ 948 630 763

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Egunkaria 01eko uztailaren 7a

«Halako proiektu bat oso interesgarria da Baztanentzat, ez baitago halakorik. Asmoa, gainera, ez da museo hutsa egitea. Naturarekin lotura zuzena izanen du proiektuak, nire lanek ere harreman estua dutelako lurarekin, eta eskulturekin batera, batera, bertako zuhaitz eta landareak erakutsiko dizkiegu bisitariei eta Bozateko historia ere bai. Berehala hasi nahi dut. Nire piezak sorterrira ekartzeko aukera ematen dit museoak. Babesle pribatuen bila ari naiz».

Xabier SANTXOTENA  
Arizkungo eskultorea  
Egunkaria 01-07-07

«Elizondoko bestetako altxaferoa botatzeko pertsonarik egokiena iruditzen zitzaidan Mikel Goñi Oronozko pilotaria, eta Nafarroako lau t'erdiko txapelketa irabazi ondotik are gehiago. Mikel Goñik egiten duen guztia ez dut txalotuko, baina bere kuraia eta esfortzua txalotzen dut; gustoko dudan gaztediaren irudia da, aitzinet egiteko izpiritua duena, era berean bihotzekoa dela ziurtatzen dut. Altxaferoa udaletxeko balkoitik botako da beti egin dudan bezala.»

Ana Mari MARIN  
Elizondoko alkate-  
juradoa  
D. Noticias 01-07-17

• 11 GALDERA LABUR •



Asier Gogortza Berako kazetari eta argazkilaria

- **Argazkilariak kazetariak al dira?**  
Ez. Argazkilariak argazkilaria dira eta kazetariak kazetari.
  - **Nori gustatuko litzaizuke argazkia egitea?**  
Pertsona ezezagunen argazkiak egitea maite dut.
  - **Zein da gehien gogoratzen duzun erreportaia edo elkarrizketa?**  
Berako kontrabandista zahar batzuei egin niena.
  - **Egin ez duzun bat eta egitea gustatuko litzaizukena?**  
Navalcameron (adibidez) dagoen preso baten aste bateko bizimoduaren kronika.
  - **Argazkiak kolorean edo zuri beltzean?**  
Orain zuribeltza nahiago, baina ar-
- gazki batzuek kolorea eskatzen dute.
  - **Ttipi-Ttapan hainbat urte emanda gero faltan botako duzu?**  
Noski baietz.
  - **Berako tokirik ederrena argazkirako?**  
Edozeintokitan ateratzen ahal da argazki eder bat.
  - **Kazetari lanarekin jarraituko duzu?**  
Oraingoz ez.
  - **Bestetan lanean ariko zara?**  
Ez. Oporretan joateko asmoa dut.
  - **Inoiz galduko ez zenuken ekitaldia?**  
Aurten gehienak galduko ditut.
  - **Argazkilaria bezala duzun ametsa?**  
Gustora egindako lanaz bizitzea.

**BERAKO BESTAK**

**EZ GAUDE DENOK!!!**

GRUPO TANATORIO TALDEA  
**IRACHE**  
GESTIONES FÚNEBRES DEL NORTE, S.L.  
© 900 704704

**FUNERARIA  
ZERBITZUAK**

**LESAKA-DONEZTEBE**

24 ordutako zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletik  
edozein herritara trasladoak

Tfnoa 948 637404.....LESAKA  
Tfnoa 948 450475.....DONEZTEBE  
Tfnoa 948 580971.....BAZTAN



**KULTURA**

# Ekitaldiz gainezka dator aurten ere Cultur

Kirol eta kultur ekitaldiak herriz herri izanen dira uda osoan

**ttipi-ttapa**

Azkeneko bortz-sei urteetan bezala, uda honetan hainbat kultur eta kirol ekitaldi izanen dira gure herrietan, Cultur 2001 kanpainaren barnean.

Hasteko, uztailaren 20tik irailaren 2a bitartekoa erakusketa zabalik izanen dira. Alde batetik, Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean, Ana Mari Marinen Oritzapenak nire xokotik 1953-1997 margo erakusketazabalik dago eta bertzetik, Bertizko Jaurregian Margo Lehiaketan parte hartu duten margolanak ikusgai daude.

**DANTZA, MUSIKA, ESKULANAK ETA ANTZERKIA HERRIZ HERRI**

Larunbat honetan, Larraiza eta Aitzindari taldeen dantza ikuskitu izanen dira Leizta eta Lesakan.

Igande honetan, uztailak 29, Urdazubin Ardanbera fanfarrea aditzeko modua izanen du Urdazubiko plazan,

eguerdiko 12,30etatik aitzin. Heldu den ortzegunean, abuztuak 2, Elizondoko Merkatu Plazan Nafarroako ipuin eta kondaira zaharrak kontatuko dituzte, arratsko 10etan. Abuztuaren 4an, leku berean, Gure eskulangile kuttunak erakusketa izanen da arratsaldeko 6etatik aitzin. Ondotik, herri kiroleko proba konbinatua izanen da. Larunbat berean, Leitzako plazan, Ammaluisa & Dixielangileak Brass Band musika taldearen emanaldia izanen da, arratsko 8,30etan.

Abuztuaren 11n, larunbata, arratsaldeko 7,30etan Ardanbera fanfarrea eta Nekez-Ari abesbatza ariko dira Elizondoko Merkatu Plazan. Biharamon eguerdian, Doneztebeko plazan herri kiroleko proba konbinatua jokatu da. Abuztuaren 25ean, larunbata, arratsaldeko 6etan eskulan erakusketa izanen da Merkatu Plazan. Etxalarren, berriz, Nafarroako ipuin



ARTXIBOKOA

Ana Mari Marin elizondarraren margolanak ikusgai daude Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean irailaren 2a bitartean.

eta kondaira zaharrak entzungai izanen dira, arratsko 10etan pilotalekuan. Abenduaren 26an, igandea, eguerdiko 12,30etan Agoizko Dantza taldea ariko da Doneztebeko plazan.

Irailaren 1ean, larunbata, Berako San Esteban elizan, Ignacio Ribas organujolearen emanaldia izanen da arratsko 8etan. Akautzeko, irailaren 2an, igandea, eguerdiko 1etan Dugu-

na fanfarreak emanaldia eskainiko du Lesakako plazan. Ekitaldi gehienak plazetan egiteko antolatutako badira ere, euria egiten badu pilotaleku edo gisako aterpetan eginen dira.

## MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

**ONDORIOETATIK INDARTZEKO:**

- Diabetia • Asma • Buruko mina • Oinen izerdia
- Larru azaleko alergia • Zizareak • Prostata, etab...

**IKUSMENAREN BERRESKURATZEA**

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

**GIHARRE ARAZOK**

- Bixkortzea
- Artritria, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

**KONTSULTA ORDUTEGIA**

Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

☎ (943) 62 30 55 San Marcial, 7-4 IRUN



## BAZTAN

### ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

**BERA**

# Berako landa ingurua ezagutzeko liburuxka argitaratuko da abuztuan

Herriko lau neskek egin dute eta turistei nahiz herritarrei zuzendua da

Asier GOGORTZA

Abuzturako egonen da publikoaren esku Berako landa inguruari buruzko gida hau. Dohainik edo prezio sinboliko baten truke banatuko dute landa etxeetan, turismo bulegoan eta Udaletxean. Miriam Erkizia, Maite Lekuona, Gorane Artieda eta Oihana Garmendia beratarrek egin dute gida hau, euren biologia eta geografia eta historia ikuspuntuak uztartuz.

Gida hau 12 urtetik goitiko jende guzientzat pentsatua dagoela adierazi digute egileek, baina irailerako haurrentzat ere egokituko omen dute. Gidaren helburuak Berako landa inguru-



ARTXIBOKOA

Egileek proposatu duten ibilbidean Arrozubia baserria ikusten ahal da.

nearen interpretazioa egiten laguntzea eta nekazal sistemaren aldatetaz ezagutzera ematea dira. Galdemodu batzuen bidezko josteta gi-

sakobat erabili dute horretarako, turistek nahiz herritarrek beraiek ere parte hartuz ikasi dezaten. Altzate, Illekueta, Zia, Dornaku, Suspela

eta Matzada auzoak biltzen dituen ibilbide gida-tua prestatu dute.

Europako dirulaguntzabatzatzen dute proiektua osatzeko.

## Hiru kiloko amuarraina

Jose Antonio Etxeberria beratarrak 3 kilopaxoko amuarrain eder hau arrantzatu du Bidasoan. Luzeran 70 zentimetro neurtzen zioten arrainak eta Bezzerro izeneko putzuan aterazuen, ederkikostata ateri ere. Melidan sortua den beratar honek erran digunez amuarrain horren kontura otordu ederra egin zuten lagunekin.

## Onddo, Batzuk eta Piztiak

Hiru musika talde hauek ikusi eta aditzeko aukera izanen da Pui ostatuan Berako besten aitzineko asteburuan. Ortzirale honetan, hilak 27, Onddo beratarrak lehen kontzertua emanen dute herrian, eta eurekin batera diska ateratu berri duen Batzuk talde gipuzkoarra izanen da. Biharamunean berriz, Piztiak betaranoek egingen dute rock&roll ikuskizuna.

## Udal zergak

Abuztuaren 24a baino lehen ordaindu behar da 2001eko lehen sei hilabetearen Kontribuzioaren ordain-agiria.

## IGERIKETA

### Ander Rodriguez bikain Gipuzkoa eta Euskal Herriko igeri txapelketan

Aspaldian inguru honetako igariketa probetan ederki aritzen zen Ander Rodriguez. Aurten, ekainaren 23-24an Zarautzen jokatuakoa Gipuzkoako txapelketan hiru domina lortu zituen, urre, zilar eta brontzez-

ko bana ekarri zuen eta bertze 4. postu bat ere eskuratu zuen. Ekainaren 30 eta uztailaren 1ean jokatu zen Santurtzin Euskal Herriko txapelketa etazilarrezko domina bat eta brontzeko bi ekarri zituen.



**GOYA**  
JOSTAILUAK  
JANTZIAK  
OPARIAK  
ERREMINTAK  
Altzate, 5 • ☎ 948630083 BERA

**ZUBIONDO JATETXEA**  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TLF 948 625 472  
sagardotegia jatetxea sagardotegia

**Terraza eta bilate konbinatuak**  
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547

**EKAITZA**  
Hostala • Kafetegia  
Gelak TB eta bainuarekin  
LESACA

# Banartako besta larunbat honetan egingen da Linddurrenbordan

Katazpegi eta Nabaz auzokoak bilduko dira bertze urte batez

**Aitor AROTZENA**

Nabaz eta Katazpegi-ko auzotarrak biltzen dituen Banartako besta larunbat honetan ospatuko da. Ekitaldi guztiak Linddurrenborda sagardotegi inguruan egingen dira: eguerdiko txupinazoaren ondoren, bigarren toka txapelketa jotatuko da. 1etan trikitilariak eta auzoko bertsolariak (Arozenatarrak, Makukoborda, Juan Mari Lopez, Etxabe...) ariko dira. Gero, auzo bazkaria egingen da. Arratsaldez ere trikitilariak eta bertsolariak ariko dira eta gaueko 9etan afaria izanen da.



ARTXIBOKOA

Ez dute nolanhiko uda Nekane Etxandi trikitixa eta Estitxu Elgorriaga panderojoleak. Etxalar, Doneztebe eta Lesakan egin diren trikitixa txapelketak aisa irabazi dituzte.

**FLASH**

**Ainara Fresneda**

etxera ekarri zuten Sanferminetan, osasun arazoak zirela eta tratamendua hartzeko. Denaden, neska gazte hau ez dute aske utzi, eguneko 24 ordutan Guardia Zibila baituetxeatarian. Abokatuek adierazi dutenez lehendabiziko aldia da etxeko zaintza hau euskal preso politiko bati egiten diotena. Beraz, «esperimentu baten aitzinean gaudela» uste dute.

**Abuztuan ere kirolaz blai**

Beti Gazte elkartearen eskutik patinaia ikastaroa eta kirol eskola egingen dira abuztuan. Patinaian hasteko uztailaren 26an, ortzeguna, eman behar da izena eta kirol eskolarako 27an, ortziralean, elkartearen egoitzan.

**SANFERMINAK**

**Guttiago falta da 2002. urteko Sanfermin bestetarako**

Bertze urte batez ailegatu eta joan zaizkigu Sanfermin bestak. Bezperako txupinazoa euripean botazen, bainage-ro, tarteka euri zaparradak bota bazituen ere, nonbait hor ibili zen eguraldia. Sanfermin eguna jendetsua izan zen. Eguerdi eta arratsaldea dantzariak izan ziren protagonista. Gaez, be-

rriz, bisitari oldeari leku egin behar izan zitzaion, ezinbertzean.

Peñek ohiko jautsiera egin zuten beraien egunean, umorez gainezka. Haur eta Ezkonduen Egunak izan ziren lasaienak, baina bietan ere giro ederra izan zen. Aurtengoak akabo, baina guttiago falta da 2002. urteko bestetarako.



ARGAZKIA: JABIER OROÑOZ

**ANAN**  
Janari denoia  
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

**KATTA**  
ostatu - jatetxea  
Plater konbinatuak eta menuak  
© 948627573 • LESAKA

Lurrindena  
**Marian**  
Jendiberri  
Estetika  
Behoko Plaza 8 • 948637791 • LESAKA

**XATURETXEA**  
ZARRA  
JATETXEA  
Tfnoa: 948637027 LESAKA

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA  
Tfnoa: 948 637 127  
**LESAKA**

ETXALAR

# Azkenean konpondu dira herriak Correos-ekin zituen arazoak

Lorpen galtzerdi enpresa martxan paratu da lantoki berrian

**Joseba eta Nerea**

Urte bat eta erdi pasatu da baserriarrek posta etxean hartzen ez zutela. Hainbat urtez herriko postari izanzen Fidel Cruz-ek erretiroa hartu eta gero arazoak hasi ziren Korreosekin, azken honek baserrietara kartak ez eramaten hasi zelako eta horregatik udaletxea arazotari irtenbidea bilatzen hasi zen. "Junta Arbitral de Consumon" eta Madrilgo parlamentuan aurkeztu zuten keza Korreosek lehengo zerbitzuarekin segitzea eskatuz eta denbora luzearen ondotik erantzuna jaso dute: hemendik aintzinerako Korreosek astean 5 egunez banatu beharko ditu kartak. Dena den, aipatu behar da zerbitzu hau korreos eta Udalaren arteko akordio baten bidez astean 2-3 egunetara murriztua izan daitekeela. Hala ere, momentuz, azkenean, lasai hartu deza kegu arnasa.



ARTXIBOKOA

**Behobiako Eraiki Dantza Taldeak udaro bezala, Bidasoa ingurura atzerriko dantzariak ekarri ditu, beraien folklorea guk ere ezagutzeko. Etxalarrera kanpoko dantzariak etorri diren 4. urtea da eta aurtengo dantza-ikuskizunak "Siepakat Talde Folklorikoa" (Finlandiatik) eta "Santa Fé de la Veracruz" (Argentinatik) bildu zituen, Etxalarko Andra Mari dantza taldearekin batera, pasa den igandean, uztailak 22.**

**Lorpen martxan lantoki berrian**

Behoko Landa auzoan dagoen Poligono Industrialean Lorpen galtzerdi enpresa eza-gunak orain dela urte bete hasi zuen lantoki berri baten eraikuntza. Uztailea hasieran herrian

barrena sakabanaturik zituen tailer eta almatzenak lantegi berrira bildu ditu eta honen ondorioz, Gibeledo Errekako lantegi zaharra al-kilerrean dago.

Obra hauen bukara ospatzeko, bertako langileek eta obran parte hartu zuten argiñek

bizkar-beste izan zuten. Uztailearen 14ean Usategietako usazaleen txabolan bazkaria egin zuten eta Joseba eta Estitxu trikitilariak arduratu ziren arratsalde partea animatzeaz. Beraz, lagun-giro ederrean eman zioten ongi-etorria lantegi berriari.

FLASH

**Gaztelu puzgarriak eta filmea larunbat honetan**

Nafarroako Gobernuak "Arte y Cultura" programaren barruan banatzen dituen diru-laguntzak direla eta ekitaldi batzuk antolatu ditu Etxalarko udalak uztailaren. Larunbat honetan, uztailak 28, gaztelu puzgarriak izanen dira herriko igerilekuan goizez eta arratsalde, eta gaueko 10etan «Muntxausen baroiaren abenturak» filmea emanen da frontoian.

**Bestak iaz baino milioi erdi bat garestiago**

Urtero bezala, uda sa-soiaren etorrerakin batera, herriko bestak izaten ditugu denak burutan. Aurtengoak ere, azkeneko asteetan eskola zaharretan eginiko bileren ondotik prestatu-axeak daude. Programazio aldetik, urteroko ekintzak antolatu ditu udalak, nahiz eta aldaketatik batzuk izan. Aipatu aurtengo besten aurrekontuaiazko baino garestixeagoa izan dela. 3.200.000 pezeta gastatuko ditu udalak aurtengo bestak beteko dituzten bortz egunetako ekitaldiak antolatzen, iaz baino ia milioi erdi gehiago.

**HARITZPE**  
 948635235  
 948635038  
**GOSARIK • BAZKARIK • BOKATAK**

Egunero idekia. Asteazkenetan atsedean eguna.

**LEGARBA**  
 Legarrea, 9 • ☎ 948 637 030 • LESAKA

**IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU**

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastifikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzeak  
 espiralean ere  
 egiten dira

**«USOA»**  
 NEKAZARI KOOPERATIBA  
 Ganaduarentzat  
 pentsurik egokiena  
 Tfnoa: 948635214  
**ETXALAR**

**HERRIKO OSTATUA**  
**Jatetxea**  
 ☎ 948635290 **ETXALAR**

## IGANTZI

# 350 lagunek hartu dute igerilekura sartzeko uda guzirako txartela

Uraren erabilera zaintzeko eskatu du Udalak

### Oskar TXOPERENA

Uztailaren erdirako 350 lagun zeuden apuntatuak udal igerilekura sartzeko uda guzirako txartela hartu dutenen zerrendan.

Zerrenda honetan kanpotarrak ere izan badira, baina datua ez da go batera gaizki Igantziz duen biztanle kopurua kontutan hartuta. Uztaila nahasi samarra doakigu eguraldiari dagokionez, baina, heldu den hilabeteberoaizanen dela agindu omen dute tenporek. Ea piszinaz gehixeago gozatzeko aukera ematen duen.

Bertzalde, uraren arazoak eman ditu aurtengoan ere lehendabiziko abisuak. Ur gutti sartzeko omen da depósitosa, eta, Udalak



OSKAR TXOPERENA

Aipatu genuen orain dela zenbait hilabete nekazari lanbidearekin segitu nahi zutenek esplotazioa arau berrien arabera legezatu beharko zutela. Herrikoetxean bildutako datuei erreparatu gero, bortz dira momentuan tramitazioa hasi duten nekazariak, eta tramitazioa lehenagotik hasia zutenak bertze sei bazirela kontutan hartuz gero, denetara hamaika esplotazio izanen lirateke legezatzeko bidean. Igantzin nekazaritzak izan duen beherakada adierazten duten datuak, dudarik gabe.

paratutako bandoek dioten bezala, kontuz era-

bili beharko dugu, arazoalarritzeanahiez ba-

dugu behinipein. Beraz, neurrian erabili.

## FLASH



### Joxe Mari Goia

Mendi-bizikleta denboraldia aintzinduxea da goen honetan, berriz ere Joxe Mari Goiaren emaitzak azpimarratu beharrean gaude, akautuberrria den Euskadiko Irekian bigarren gelditzea lortu baitu azkenean. Txapela azken proban galdu zuengainera, Zugaitz Ayusok, bere areario nagusiak, irabaztea lortu baitzuen, berak laugarren egin zuen bitartean. Joan den astean Vigo alderajoatekoazen Xabi Telletxearekin Estatuko Txapelketan ibiltzera, eta ondotik atsedena hartuko omen du Igantziko proba behar bezala prestatzeko..

### Parrokiko bidaiak

50 lagun inguru joan ziren joan den astean Igantzitik Arabar Errioxara urtero Parrokiakeliza garbitzen dutenez antolatzen duen bidaiari. Arantzakoekin batera joaten direla kontutan hartuta, bi autobus bete-beteak.

**t tipi**  
**t tapa**

Zure publizitatea  
7.000 etxetan  
sartuko da  
☎ 948 631188

**CONSTRUCCIONES MECANICAS**  
**BERBIZAN S.L.**

Makinaria eraikuntza  
Moldaketak eta despiezea  
Mantenimendu mekanikoa  
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantzi Benta • ☎ 948 627572 • Faxe: 948 637508

**KAXULA**

- Sukaldeko tresnak  
- Opariak  
- Pinturak

Albistur, 51 LESAKA  
☎ 948 63 75 58

**KOXKILA**  
**OSTATUA**

Zarandia, 4 - LESAKA

**ATM S.A.**

**AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.**

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzi Benta • ☎ 948 637 411 • Faxe: 948 637 313

**ALDO OSTATUA**

LESAKA

ARANTZA

# Luberriak ateratzeko eta hobetzeko proiektua onartu du ahobatez Udalak

Nafarroako Gobernuko Herrilan sailak aurkeztu du

**Garbiñe eta Elixabet**

Udan sartuak baldin bagara ere, Herriko Etxeak ez ditu oraindik oporrak hartu. Honela, egindako azken batzarraren, gai partikularretaz aparte, bertze erabaki batzuk adostu zituzten. Alde batetik, herriko luberriak hobetzeko dirulaguntza eskatua zitzaien Nafarroako Gobernuari. Bertako herrilurren sailak Arantzako luberriak ateratzeko eta hobetzeko proiektua bidali du udal honetan beharhala onartzeko. Udalak erabaki du Nafarroako Gobernuak eskatu-

tako eta Seingra enpresak egindako proiektua onartzea, bertan aipatzen diren hainbat lan egiteko. Ondoko egunetan jakinen dira zein lan izanen diren egin beharrekoak.

**Agur armei mozioa onartu da ahobatez**

Uztailearen 14an, Zazpiak Bat dantza elkarteak bere udako ospakizun nagusia antolatu zuen. Bainan ez zuten denbora alde izan, euria egin baitzuen eta ondorioz ekitaldi gehienak ez ziren burutu. Gainera, jende gutti hurbildu zen errebotera bai bazkaltzeko eta afaltzeko tenorean. Agian agorrilaren 8an eta 22an, arratseko 9ak eta erdietan eskainiko diren dantza ikuskizunekin arrakasta gehiago izanen dute.

## Errugbi, sangria eta pilota bestak

Agorrilaren lehen larunbatean, 4an, errugbiaren besta iraganen da egun osoan; Sangria gaua abuztuaren 14an arratseko 9:30etan eta Pilotaren Besta 25ean.

**HERRIKO ETXETOKO EDANTEGIA**



CAFÉ DE LA MAIRIE

MAIXAN ETA VÉRONIQUE  
SARA • TEL. 0559542519



## AZKAIN

# Itziar Barriolaren omenaldian azkaindar ainitzek parte hartu zuen

Aratzen urtebetzea gogoratu zuen Orduan! elkarteak

**Ihintza, Angela eta Eneko**

Uztailaren 16an Itziar Barriolak bere azken hantza eman zuen eritasun larri batek jorik 56 urtean. Donibane Lohizungo ikastolan erakasle eta zuzendari izan zen luzaz eta ikastolan ibili diren haur Azkaindar gehienak bere ikasleak izan ziren. Itziar Barriolak eragin handia izan zuen Seaska erakundearen. 1974-tik goiti lan handia eraman zuen pedagogia mailan, Gobernua erekin egin ziren azken negoziaketetan parte hartu zuen, eta Seaskako integrazio batzordearen bultzatzaile izan zen haur trisomikoak klaseetan onhartuak izan daitezten. Omenaldi biziki unkigarria egin zen Donibaneko portuan. Aurtengo ikasleek kantu alai bat eskaini eta gero Lankideek Martxa baten lehen notak kantatu zioten eta Azkaingo lau gaztek aureskua dantzatu zioten. Zeremoniaren ondotik jendea itsas-bazterrerainoan zen Itziarren hautsak han ixurtzeko. Jendeak ehunka bilduak ziren. Donibaneko ikastolan Haitz bat landatu zuten haurrekin. Han Euskal



Azkaindarrek azken agurra eman zioten Itziar Barriola erakasleari.

Herrian Euskaraz eta Lorettoa kantatu ziren.

### Zorionak Aratz

Ez baitzuten bere urtebetetzea usaian egiten den bezala ospatzen ahal, erran nahi du mahain baten inguruan, pastiza handi batekin, kandela batzuekin (22) eta bereziki harekin batera, Orduan! elkarteak egun inportante hori markatu nahi izan zuen Aratzi Zorionak ospatuz, sinbolikoki Larrunerat upatuz.

Hitzordua Uztailaren 7an finkatua zen goize-

ko 9etan Azkaingo plazan. 20 bat ziren orotarat, Ikurriñez eta EPEH bandera batzuek ekipatuak. 20ak motibatuak ziren eta sofrimenduak hartzen zituelarik upatzerakoan, Aratzi eta bertze presoeri pentsatzeak indar berriak ekar-

tzen zizkien. Zailtasun batzuekin kaskorat arribatu eta gero, denak unatuak ziren baina denak kontent Aratzentzat eta bertze guzientzat egina zutenarentzat. Poteo batekin segitu zuten giro goxobatean eta tren tikiarekin etorriak zire-

nen artean. Ondotik 7 Iturrietarat jautsi ziren han oihaletxetan lo egiteko. Gau goxo bat pasatu zuten su eder baten inguruan. Biharamun goizean Azkaingo plazaraino jautsi ziren baina aldi hortan euriarekin.



Aratzi zorionak emateko Larrunerat upatu ziren hogeit hamar lagun.

## FLASH

### Mendi martxa Azkaindik eta Beratik

Abuztuaren 11an eta 12an Segi gazte erakunde berriak mendi martxa bat antolatuko du Insumisioa lema eraman inguruan. Bi egun horiekin Iparralde eta Nafarroaren artean inposatua zaigun mugaren aldeetatik ekintza sinboliko bat eraman nahi du Segi. Lehen hitzordua larunbatarekin goizeko 9 eta Berako eta Azkaingo bi plazetan izanen da. Denak eguerditan elkartuko dira kaskoan. Handik, arratsaldearekin mendi martxak segituko du muga-harriak segituko dituztela ibiltariekin. Arratsean ziklo erretzea eginen da. Igande goizean Sara herriraino kurritu beharko da, han zintzur-bustitzea, bazkaria, ekitaldi politikoa eta kontzertua (Hats...) antolatuak izanen direlarik.



**GOZOTEGIA OKINDEGIA**

S.A.R.L. ETCHÉ-ONA  
**AZKAIN**  
Tél. 59 54 01 67

URDAZUBI - ZUGARRAMURDI

# Xaretako Kultur Astea egingen da Urdazubi eta Ainhoan

Axular ezagutaraztea izanen du helburu

**Margari eta Koro**

Ainhoa eta Urdazubi biko Herriko Etxeek antolatutik, Xareta lurraldeko Kultur Astea egingen da agorrilaren 6tik 11rat. KulturAste honen xedea Axular ezagutaraztea izanen da. Horretarako, astelehentik larunbatgera bere sortetxeazabalik izanen da, goizeko 10etatik arratsaldeko 7ak arte. Abuztuaren 9an, ortzeguna, arratseko 8etan antzerkia izanen da Urdazubiko plazan, Europako herri ttiketako hizkuntza guziekin. Sartzea urririk izanen da. Ortziral arratsaldeko 6etan, Ainhoako Herriko Etxean «Euskal kantu berria 60 urteetatik orain arte» mintzaldia eskainiko du Christian Laprerie musika idazleak. Gaueko

9,30etan elizan Ainhoako Atsulai kantarien emanaldia izanen da.

Larunbatean, abuztuak 11, «Axular, euskara Nafarroan eta euskararen kutsua Pirinioetan» mintzaldia izanen da Urdazubiko plazan, Euskaltzaindiak eta EUEkoek eskainirik. 2etan zikiro jatea izanen da Monastegiko klaustropean bertsolari eta musikariekin. Arratsaldeko 7etan, azkenik, kantugregorianoak izanen dira.

**Tximistorratza**

Nafarroako Gobernuo aginduz, Udaltxeek herriko pararrayos edo tximistorratzen egoeraz arduratu behar dute. Hori dela eta, ekainean aldatu dituelizakotximistorratza.

Orain arte zegoena ez omen zegoen egoera txarrean, bainan potentzia txikia zuen eta ez zuen hainbertze segurtasunik ematen, indar haundiko zimiztak ez zituelakoz osorik deskargatzen lurrera; lur azpian ikatza eta kobrezko plantxak zituen, lehen erabiltzen zen manera arruntean. Orain berriz, altzairuzko hiru pikasartu dituzte eta pararrayoserako konduktorea ez da kable bat, lamina fin bat baizik.

**Gaupasa afaria**

Gaupasa egunean lan egin zutenetako 125 lagun bildu ziren uztailaren 21ean Armuia jabetxean afari eder batean. Duela 9-10 urte hasi zen antolatzen afari hau lanaren nolazpait



Duela bortz urte ez zela Zugarramurdin komunio-nerik ospatzen eta aurten akontezimientu haundia izan da, Jaionena ospatu delako.

teko ordain gisa, eta nahiz eta jendeak gaupasarako gustura eskeintzen duen bere launtza, erran behar da gustura ere hartzen dutela gonbite hau, izigarriko giro ederra sor-

tzen delako. Lan egiten dutenen artean gazte, ez hain gazte eta adinatuak daude, eta herritarretatik aparte ere kanpotar lagun, familiakoak eta halako ainitz ere izaten dira.

**AITZINAKO ALZARIAK SALGAI**

SE VENDE  
1083€  
175.000 PTS.  
TELÉFONO 948-510078  
VENDE: Joxe  
SALTRAILEA: Joxe

**KULTURKARI**

**Inprenta lanak egiten ditugu**

- Kartelak
- Boletok
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean egingen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ 948 63 11 88



## EZKONTZAK

**Tomas Biurrarena Uitz** eta **Rosa Maria Ortiz Caballero**, Leitzakoak, ekainaren 16an.

**Francisco Javier Alduntzin Zabaleta** eta **Maria Cristina Azkarate Astibia**, Leitzakoak, ekainaren 23an.

**Jose Madariaga Almandoz** eta **Miren Karmele Apezetxea Tapia**, Lesakakoak, maiatzaren 5ean.

**Jose Javier Zubieta Apeztegia** eta **Nora Maria Eneverreaga Etxepare**, Lesakakoak, ekainaren 2an.

**Francisco Javier Goienetxe Vaquero** eta **Aintzane Goñi Eraso**, Lesakakoak, ekainaren 9an.

**Joseba Iñaki Igoa Ziganda** eta **Itziar Alvarez Barriada**, Lesaka eta Bilbokoa, ekainaren 30ean.




## JAIOTZAK

**Aimar Iparragirre Zinkunegi**, Etxalarkoa, uztailaren 8an.

**Ainhoa Etxeberria Apezetxea**, Goizuetakoa, uztailaren 11n.

**Roberto Arnaiz Pizzio**, Berakoa, ekainaren 29an.

**Oiher Alzelai Kanflanka**, Leitzakoa, uztailaren 3an.



## HERIOTZAK

**Juan Ramon Barriola Zabaleta**, Leitzakoa, uztailaren 4an, 62 urte.

**Miguel Zabaleta Lizarraga**, Leitzakoa, uztailaren 13an, 89 urte.

**Jose Javier Mujika Astibia**, Leitzakoa, uztailaren 14an, 59 urte.

**Manuel Mariezkurrena Telletxea**, Doneztebekoa, uztailaren 15ean, 65 urte.

**Benigna Goikoetxea Etxeberria**, Ezkurrakoa, uztailaren 18an, 92 urte.



**Eskelak eta urtemugak  
ttipi-ttapa  
aldizkarian eta telebistan**



**948 63 11 88**



**Felix KORTA LEKUONA**  
(Periko)

*83 udaberritan  
eman digun umorea  
83 udaberritan  
loratu den landarea  
joan egin da gure attona  
gizon alai dotorea  
baina bihotzan leku bat dugu  
beti zuretzat gordea.*

Zure bilobak, Ander eta Unai.  
Beran, uztailaren 3a.



**Fernando ETXEGARAI** *Berako koxkor biltzailea*

**DATUAK...**

- Aitor Bengoetxea 21 urteko atzelari leitzarrak profesioaletako debuta egin zuen ekainaren 17an bere herrian. Kokarekin batera 19-22 galdu zuen Urionaguena eta Naldaren kontra. Hiru urterako kontratua du Maeskurekin.
- Eskuz banakako txapeldun bi aldiz izandako Bengoetxea III, Juan Mari, da bere aita. Aitorrek Bengoetxea V izena darama kamisetan.
- Lehenengo mailan dagoen edozeinen antza izatea gustatuko litzaioke, baina bereziki Beloki eta Barriola aipatzen ditu.

# «Aita-osabak egin zutenaz harro nago, baina horrek neretzat ez du balio»

**Aitor AROTZENA**

Profesional mailako debuta herrian bertan egitea egokitu zitzaion Aitor Bengoetxea, Bengoetxea V. ari eta galdu egin zuen. «Alde batetik herrian debutatzea mesederako da, bizi guzian aritu zaren frontoian zaude, gehiago ezagutzen duzu eta gustora jokatzen duzu. Bestalde, egia da, herriko jendearen aurrean ongi gelditu nahi duzula» dio Aitorrek. Geroztik beste partidu bat jokatu eta irabaztea ere lortu du. Bere ustez, alde nabarmena dago afizionatu eta profesionalen artean: «Hemen tantua egiteko lan askoz gehiago egin behar da. Partidu luze eta gogorrak izaten dira, erritmo gehiagorekin». Afizionatuetako azken urtean, 22 urtez azpikoentzako Munduko txapelketan lortutako bigarren postua da Bengoetxearen ustez bere lorpenik nagusia. Bere senide gehienak, aita, osaba nahiz laster profesioaletara salto eginen duen Oinatz lehengusu gaztea,

**Pilota eskolako mutikoen beraiekin ikusi gaituzte eta horrek ilusioa egiten die: bera ailegatu bada, nik zergatik ez? galdetzen diote bere buruari.**

aurrelariak izan dira, baina Bengoetxea V atzelari gisa aritzen da. «Ni ez naiz ezaugarri berezirik duen pilotaria, baina denean nahiko erregularra naiz eta pilotan jokatzen jartzen dudana ilusioa eta gogoia aipatuko nituzke. Hori bai, ni eskuina naiz eta ezkerrean hobetu beharko nuke, orduak sartuz eta entrenatuz». Eskuz banaka ere aritzen da eta azken bi urteetan Nafarroako azpitxapeldun izan da.

**«PILOTAN GOZATZEA LORTZEN BADUT GUSTORA GELDITUKO NAIZ»**

Barriola, Iparragirre, Aitorbera, abudo Bengoetxea VI... pilotari asko eman

ditu Leitzako eskolak azken aldi honetan: «Egia da, horrela suertatu da. Leitzako eskolan jende asko ari da lanean, askotan aipatu ere egiten ez direnak, baina beraien lana hor dago». Herriko gazteak profesioaletan ikusita, haurrak ere pilotan gehiago saiatzen direla uste du Aitorrek: «Mutikoen beraiekin ikusi gaituzte pilotan eta horrek ilusioa egiten die: bera ailegatu bada nik zergatik ez dut ailegatu behar? esaten dute. Niri gauza bera gertatzen zitzaindan Abel ikustean». Familian maila altua jarri diote, marka handiak egin baitituzte, baina Bengoetxea V.ak helburu apalagoak jartzen dizkio bere buruari: «Aitak eta osabak oso altu jami dute listoa. Bere lana egin zuten eta nik aurrera segitzeke nerea egin beharko dut. Beraiek egin zutenaz harro nago, baina neretzat horrek ez du balio. Pilotan gozatzeko saiatuko naiz. Ailegatzen naizen lekura ailegatzen naizela, disfrutatzen badut gustora egonen naiz».

### PILOTA



Txarutako pilotariak Nafarroako Herriarteko txapelketa irabazi dute bigarren urtez segidan.

JOXE LACALLE / EGUNKARIA

# Nafarroako Herriarteko txapelketa ere irabazi du Txarutak

Finalean Iruñeko Oberenari lau partiduetatik hiru irabazi zizkion

Belate elkarteak antolatutako Udaberriko Saria irabazi ondotik, Nafarroako Herriarteko txapelketa ere irabazi du Txarutaelkarteak bigarren urtez segidan, momentuan Nafarroan dagoen talderik indartsuena dela erakutsiz.

Baztan eta Malerrakako pilotariak Iruñeko Oberena izan zuten aherio uztaillaren 8ko finalean. Alebin eta jubenil mailetan Txarutako garaipena eta handietan Oberenakoena nahiko garbiak ziren, beraz, infantil mailako norgehiagokan zegoen txapelaren giltza.

Espero bezala, maiarik tikienean jaun eta jabe izan ziren Joxe Luis Agesta almandoztarra

eta Patxi Barberena iruritarra. Saranton eta Calvo iruñearrak 0-2 aitzinetik paratu ziren, baina gero ez zen kolorerik izan. Azkenean, 18 eta 6 irabazi zuten Txarutakoek.

Infantil mailan borroka gehiago ikusi ahal izan zen. Kategoria honetan itxaropen handiak zituzten Oberenakoek, Etxeberria eta Urdanizek bikote polita osatzen baitute. Baina Mikel Iraola almandoztarra eta Luis Ibarra sunbildarrak ere partidu bikaina egin zuten. Azken aldia aunitz hobetu dute biek eta ederki erakutsi zuten hori Iruñeko finalean, 18 eta 11 irabazi baitzuten. Gisa honetara kasik erabakia

gelditu zen finala. Izan ere, jubeniletan Unai Arraztoa elizondarrak eta Iñaki Eskudero erantsundarrak aisa bete zuten pronostikoa: 22 eta 9 irabazi zieten Diaz eta Olazabaleri, bigarren urtez segidan Nafarroako Herriarteko txapelketa Baztan eta Malerrakara ekarriz. Eskudero Olazabal baino higitzez gehiago izan zen gibelean eta Arraztoak tantoak akitzeko aukera hobeak izan zituen. Aitzinean berdintasun gehiago izan zen. Arraztoak dozena erdibattatu lortu zituen sakez eta Diazek lau.

Handien partidua dena erabakita zegoela jakatu zen, baina Iruñekoek ohorezko garai-

pena lortzeko aprobeztatu zuten. Ander Ageta aranztarra eta Okiñena aritu ziren Oberenakoekin eta deus guti egin ahal izan zuten Oronoz Mugairiko Joseba Berroketa Amairuko Toni Huartek. Haserako tantuetan berdintasun pixar bat izan zen, baina 7 eta 22 irabazi zuten Oberenakoek.

### EUSKAL HERRIKOAREN BILA ORAIN

Orain, Euskal Herriko txapelkaren bila ari dira Txarutakoak. Sorluzeren kontra jokatu dute finalerdia eta hori irabaziz gero, Araba edo Bizkaiko ordezkariaren kontra jokatu dute. Ea iaz bezala txapelketa lortzerik baduten!

### BOTE PRONTON

#### Laxoa txapelketaren finala

Abuztuaren 5ean jokatu da Baztan-Erreka-ko laxoa txapelketaren finala Elizondoko plazan. Finalerdietan Arraioz Iurita Bren aurka eta Doneztebeko A eta B taldeak ari dira nor baino nor. Asteburu honetan jokatu dute lehen partida eta uztaillaren 29an erabakiko da finala. Finalerdi parekatuak espero dira, baina azken bi urtetako finalistak, Arraioz eta Doneztebe a dira faborito.

#### Herri Kirolak

Patxi Larretxea arraioztarrak aparteko arazorik gabe irabazi zuen uztaillaren 14an Iruñean Nafarroako txinga txapelketa. 50 kiloko txingekin 16 plaza egin zituen, bigarren sailkatu zen Lazkozi seiren aldean kendu zion. Egun eta leku berean jokatu zen Nafarroako lasto altxatze txapelketa. Azken urteotako txapeladuna, Eduardo Eugi, ez zen finalean izan, baina Igantziatik ez da mugitu txapela, Xabier Seinek irabazi baitzuen. 45 kiloko lasto fardoarekin 18 altxaldi egin zituen bi minututan eta hemeretzigarrena bi minutu eta segundu batean egin zuen. Horrek emanzion txapela, Iñaki Bereau herriarrak ere 18 jasoaldi egin baitzituen. Miguel Angel Etxartek 15 egin zituen.

#### Mikel Goñi

Nafarroako lau terdiko txapelketa irabazi zuen Oronozko aurrelariak Sanfermin egunean Iruñean, Armendarizi 22-16 irabazi ondotik. Lehen txapel ofiziala izan da Goñi Ilrentzat.

age  
AGENDA  
egunez  
egun

**ERAKUSKETAK**

**ELIZONDO**

Uztailaren 20tik irailaren 2ra Ana Mari Marinen «Oroitzapenak nire xokotik 1953-1997» margo erakusketa Arizkunenea kultur etxetik.

**BERTIZ**

Uztailaren 20tik irailaren 2ra Bertizko Jauregian Margo Lehiaketan parte hartu duten margolanak ikusgai.

**MUSIKA**

**BERA**

Uztailaren 27an Cnndo eta Batzuk taldeak Pui ostatuan. Uztailaren 28an Piztiak taldea leku berean.

**ZINEMA**

**ETXALAR**

Uztailaren 28an «Muntxausen baroiaren abenturak» filmea frontoian, gaueko 10etan.

**MENDI MARTXA**

**BERA-AZKAIN**

Abuztuaren 11 eta 12an Segi erakundearen aurkezpen gisa mendi martxa abiatuko da Berako eta Azkaingo plazetatik Larrun kaskorat. Ondoren, mendizaleek Sarako bidea hartuko dute eta usotegietan gaua pasatuko. Biharamunean plazari buruz hurbilduko dira eta eguerditan Gaztetxeko kideek prestatu bazkariak gozatzan ahaliko dute. Arratsaldean, aldiz, kontzertuen aldi izanen da polikiroldegian.



# Elgorriaga, Bera, Sunbilla, Arantza eta Etxalar

Ttipi-ttapa telebistako ikusentzu-leek ederki jakinen duzuen bezala, dagoeneko udako herrietako bestetako dinamikan arrunt murgilduak gaude, eta hala jarraituko dugu uda akabila bitarte. Doneztebeko San Pedro bestek, Lesakako sanferminek, eta Iturenego bestek dagoeneko eman dute eman beharrekoa, eta aldi berean guk ere besta hauek erakutsitako irudi politenak eta berexienak eskeini dizkizuegu. Baina oraindik izanen dira gehiago eta joan den igandean ospatu zen Baztandarren biltzarra besta haundiaren ondotik, segidan hartuko dugu berriz ere besten haria. Hasteko Elgorriagako Santiago bestak ikusi ahal izanen dituzue

ttipi-ttapa telebistan. Hau, aste honetan bertan izanen da, heldu den astelehena bitarte. Eta batzuk bukatuko diren heinean bertze herrietako besten testigu izanen gara. Berako San Esteban bestak ikusteko, abuztuaren 2tik aitzinera, egunero prestatuko ditugu saio berexiak, elkarrizketa eta gainerakoekin. Beratik Sunbillako bidea hartuko dute gure kamarek, eta nahiz bestak abuztuaren 10ean hasiko diren gure erreportaiak abuztuaren 13an eta 14ean, astelehenean eta asteartean ikusi ahal izanen dituzue. Eta azkenik, telebistak udako geldialdia egin baino lehen eta Amabirjin egunarekin batera, Etxalareta Arantzako besten berri emanen dizuegu.



Ken Zazpi taldearen proiektua 1996an sortu zen, Jon Mikel Arronategi Exkixuko baxujoleak eta Eñaut Elorrieta Lugarriko abèsleriak bultzatuta. Orduan, aurre-rapen gisa, "Bi eta bat" abestia kaleratu zuten. Gero ordea, bost urtez atzeratu zen Ken Zazpi proiektua. Halere, orain gogo biziz ekin diote berriro, eta Igor Artzanegi baxuan, Beñat Sernakitaran, Iñaki Zabaleta trikitian eta Jon Fresko baterian lagundutuzela, gure herriaren iraganarentzat etorkizuna aldarrikatzen duen "Atzo da bihar" diskoakaleratu dute Gor disketxearen eskutik. Hamaika kanta dituen denetara: Aipatutako "Bat eta bat" hartaz gainera, "Zenbat min", "Mallen", "Itxoiten", "Larrun", "Profetak", "Irribat", "Hortzikara", "Badakit" eta "Ezer ez da betiko". Taldeak jada kontzertuak hasi ditu.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (uztailaren 6tik 13rako prezioak)



**Zerrikumea**  
(19 kilo): 10.800 pta.  
**Zerri gizona**  
(95-100): 241 pta/k.  
**Zerramak:**  
125/130 pta./kiloa, bizirik.



**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak: Pta/kg. Kanal**  
Extra 465  
1.koa 445  
2.koa 425  
**Urruxak: Pta/kg. Kanal**  
Extra 475  
1.koa 455  
2.koa 435

Oharra: Prezioak 200-230 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.  
**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):  
**Nabarrak:** urruxak 35.000 eta idixkoak 28.000 Pta.  
**Mestizoak:** urruxak

37.000 eta idixkoak 35.000 Pta.  
**Zaldikoak: Pta/k**  
Sortuberriak: 555/565  
Zaldi-behorrak: 375/385  
**Bildotsak: Pta/k**  
6-8 kilokoak: 1.050-1.100  
8-10 kilokoak: 925-975

## JAKIN BEHARREKOAK



# Bideko segurtasun arau berriak

Aurten bideko segurtasun arauak aldatu dituzte oro har zigorrak gogortzeko asmoz. Gidariak adi egon beharko dute hemendik aitzin dituzten isunen kopurua kontutan hartuz.

### Karneta noiz erretiratzin ahal digute ?

Gidariari karneta kenduko zaio gaitasuna, ezagutzak edo gidatzeko trebetasuna galdu duela baizetatzin denean. Karneta kenduko zaio ere



hurrengo hiru kasuetan:

1. Biurteren buruangidariak hiru arau-urratze larri egiten dituenean (50.000 pezeta - 300 euro).
2. Biarau urratze oso larriak (100.000 pezeta bitarte - 600 euro).
3. Bi arau-urratze larri eta bertze bat oso larria egiten baditu bi urtetan.

### Nola bete daiteke zigorra?

Nahi izanez gero epeka bere daiteke zigorra. Orain arte astetartean ko-txea lanerako behar zutenek bide hau hautatzen zuten, zigorrak astebu-

*Karneta erretiratzin badigute, zigorra epeka bete dezakegu, asteburuetan adibidez.*

ruetan batez ere betez. Gertakari hau ez zegoen legedian zuzenki isladatua. Bideko segurtasun arau berrien artean atal hau sartu da zehaztasunik eman gabe, beraz zigorra jaso duenak eskatu beharko du epehauek finkatzea.



ALZAGA AUTOESKOLA

## LIBURUAK



*Durango Durango*

**J.K. Igerabide eta M. Valverde**

ELKARLANEAN

Elkarlanean argitaltxeak haurrendako "Kuku" sailan 5. liburua argitaratu du. Juan kruz Igerabidek idatzi eta Mikel Valverderen marrazkiekin jantzitako oilarren ipuin ederra ekarri dugu hontakoan. Durango Euskadiko hirian igarotzen lehendabiziko istorioa. Bertangizon bizkor batek oilategia jarri du hiri erdian, gerora parkea izan behar duen lekuan. Durangar hori oilo hezitzailea da eta gauza harrigarriak eginaraztendizkie oiloei. Kaletik sor-

baldan bi oilo dituela ibiltzen da. Bigarren atala Mexikoko Durango hirian finkatua dago. Han Lupita oiloa eta oilo bizkaitar batek hainbat istorio biziko dituzte. Uda garaian murgildugaren unean haurrek ederki pasatuko dute liburu hau irakurtzen eta baita marrazkiak ikusten ere. Mexiko eta Euskal Herriko giroetan murgildukodira Juan Kruz Igerabideren laguntzarekin. Igerilekura edo hondartzara bazoazte ez galdu liburuxka hau.

# AGENDA egunez egun

### BESTAK

#### ZIGA

**Abuztuaren 9tik 13ra**  
San Lorentzoak.  
Xehetasunak 23. orrialdean.

#### BERA

**Abuztuaren 2tik 6ra** San Esteban bestak.  
Xehetasunak erdiko gehigarrian.

#### LEITZA

**Abuztuaren 10etik 15era**  
San Tiburtzio bestak.  
Xehetasunak erdiko gehigarrian.

#### BEINTZA-LABAIEN

**Abuztuaren 3tik 7ra**  
Xehetasunak 15. orrialdean.

#### SUNBILLA

**Abuztuaren 10etik 14ra**  
San Tiburtzio bestak.  
Xehetasunak 16-17. orrialdean.

#### GAZTELU

**Abuztuaren 3tik 7ra** Santo Domingo bestak.  
Xehetasunak 18. orrialdean.

#### LESACA

**Uztailaren 28an** Banartako bestak. Xehetasunak 11. orrialdean.

### GUARDIAKO BOTIKAK

#### Uztailaren 23tik 29ra

Lesaca, Narbarte, Irurita eta Goizueta.

#### Uztailaren 30etik Abuztuaren 5era

Igantzi, Doneztebe, Lezaun eta Goizueta.

#### Abuztuaren 6tik 12ra

Arantza, Sunbilla, Iturralde, Leitza eta Goizueta.

00-34 **948 63 11 88**

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapa igorri faxez edo postaz.

**...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarian informazio eta zerbitzuen berr ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

**ETXEBIZITZAK**

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartitua
- 106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

**LANA**

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

**MOTORRA**

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

**ANIMALIAK**

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

**DENETARIK**

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**

- 801. Agurrak

**ETXEBIZITZAK**


**101 SALDU**

**LESAKA.** Antoiu karrikan 85 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. ☎ 948 637 333 (eguerdian eta 19etatik aitzinera).

**BERA.** 79 m<sup>2</sup>ko pisumoblez-tatua salgai. ☎ 948 630 943.

**IRUÑEA.** Txantrea auzoan pisuasalgai, osoegoera onean. Mobleztatua. Bizitzen jartzeko prest. ☎ 948 510 012 edo 617 808 848.

**ELIZONDO.** Alduides karrikan pisua salgai. Bista ona etaeguzkitsua. Egoera onean. ☎ 948 452 125 (gauzez).

**ADOS** 

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841  
607 978 656

**Tele**   
**inmobiliaria**

Eskaera handilagatik bordak, baserriak, etxeak, pisuak eta lur-eremuak behar dira.

☎ 948 630 601

**IGANTZI.** Pisuasalgai, 90m<sup>2</sup> hiru logela, jangela, komuna eta sukalde. ☎ 687 950 373

**ETXEBIZITZAK**  
**103 Errentan eman**

Iruñean Mendebaldekoa auzoan pisua errentan ematen da. ☎ 948 637752 (Arrats-eko 9etatik aitzinera).

**ETXEBIZITZAK**  
**104 Errentan hartu**

Pertsona bat eskaintzen da baserria edo borda zaintzeko bizitzen jartzearen truke. Gasnagileanaiz eta furgoneta handia dut. Ingelesitzultzaile naiz. Euskaraz ere zer-bait badakit. ☎ 659 733 391 (Alan).

**LESAKA** pisua hartuko nu-

ke errentan, 3 hilabetetik 6 hilabetetara. ☎ 948 177 573 (gaueko 9etan)

**BERA** pisu ttikia eta mobleztatua hartuko nuke errentan. ☎ 948 581 98

**GARAJEAK/LOKALAK**  
**107 Saldu**

**DONEZTEBE.** Aparanen 75 m<sup>2</sup>ko nabe pabilioia salgai, 55m<sup>2</sup>ko bigarren plantarekin. ☎ 948 450 906

**GARAJEAK/LOKALAK**  
**109 Errentan eman**

**LEGASA.** 450m<sup>2</sup>ko nabea alokatzen da. ☎ 629 348 491

**GARAJEAK/LOKALAK**  
**111 Bertzelakoak**

**ELIZONDO.** Ostatu tras-pasatzen da Elizondon. Errenta baxua. ☎ 948 585 016

**LANA**  
**301 Eskariak**

Etxekolanak egin edo hau-

rrak zainduko nituzke, astelehenetik ortziralerara ☎ 948 581 157.

Emakume batek etxea gar-

**Alicia T. Erlanz**  
SERVI-LAN  
BEHAR DITUZUEN LAN TXIKI HORIENTZAK  
OFIZIALE GUZTIAK  
**SERVI-LAN**  
Elizagibela, 5 • DONEZTEBE  
Tel. 948456193 • Fax. 948450760

bitzen lan eginen luke. Komfiantzakoa. ☎ 948 635 231

Esperientzia duen neska batek Beran edo Lesakan, haurrak zaintzen lan eginen luke. ☎ 948 637 911 (Edurne)

**LANA**  
**302 Eskaintzak**

Donostian urritikaurrera, haurrak zaindu eta etxekolanak egiteko emakumea behar da. ☎ 943 450 887

Iruñeako enpresabatean dokumentalista bat behar da. MARC formatuan esperientzia duena edo ezagutza duena. ABSYS katalogoan

**ADOS** 

Parrokia 9 • DONEZTEBE

**SUNBILLA:**  
**Azken 4 etxeak**

  
**Etxebizitza elkar atxikiak**  
106 m<sup>2</sup> + 50 m<sup>2</sup> garaje + lur zatia



**Obrak hasiak dira**

Argibideak:  
☎ 948 451 841  
607 978 656

  
**BERAko UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE BERA

**ZIA ERREKAKO ZUBIA ZABALTZEKO LANAK**

- Kontratuaren xedea: Zia erreka zubi zabaltzeko obrak.
- Esleipen modua: Pentsan iragarritako prozedura negoziatua.
- Kontrata aurrekontua: 8.910.671 Pta. / 53.554,21 euro (BEZ barne).
- Proposamenak aurkeztea: Iragarki hau egunkarietan argitaratu eta ondoko 15. eguna arte. Orduak: 9:00etatik 13:00etara. Azken eguna larunbata suertatzen bada, astelehenaraino luzatuko da.
- Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea: Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta ondoko 5. lanegunean. Egun hau larunbata suertatzen bada, hurrengo astelehenean irekiko dira. Ordua: 14:30.
- Proiektua, baldintza tekniko eta klausula administratiboen plegua eta gainerako baldintzak interesatuen eskura leku hauetan izanen dira: Udal bulegoetan / Rubio paperdenda: Fco. Bergamin, 10 (Iruñea) / Ingesoa: Iturlandeta karrika (Bera)

Bera, 2001.07.05  
ALKATEORDEA, Maite Egorriaga Errandona



automatizatuan kudeaketa sistema ezagutu behar du. Informazio gehiago BITAR-TEn ☎ 619 829 289 (Betisa Anda)

Beran bizi den **emakumea** behar da, goizez etxeko lanak egin eta 5 urtetako haurren lan batzuetaz arduratzeko. ☎ 948631 185 Eguerditan 1etik 3etara edo gaueko 9etatik aitzin.

Donostian **neska interna** bat behar da uztailaren 15etik abuztuaren 15era. Soldata 130.000 pezeta. ☎ 943 427 967 (gaueko 8etatik 9etara).

**MOTORRA**  
**501 Salerosketak**

Peugeot 306 XRD salgai. Egoera onean. NA-AK ☎ 948 637 964 (2,45etatik aitzin).

**DENETARIK**  
**701 Galdu/Aurkituak**

**Urrezko pultsera** galdu da Donezteben. "Ane" izena du aurretik eta "01-02-98" data atzetik. ☎ 948 631 098

**MENDAUR MOTOR**  
☎ 948 450333 • DONEZTEBE

**Bigarren eskuko kotxeak:**  
R Expres D, C 15 D, Clio D,  
Astra 1.6 16v  
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

**WEB ORRIALDEAK**  
**EGITEN DIRA**

*Eskatu aurrekontua*

☎ 607 84 10 58  
sareten@jet.es



**OSTATUA**  
errentan  
eman  
nahi da

☎ 948-450271  
Doneztebe



**BAZTAN**  
**FUNERARIA**

**TANATORIO ZERBITZUA**  
**HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA**  
**EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK**  
Pedro Axular, 6 • ELIZONDO  
• ☎ 948 580373 • 608 776176



**ttipi-ttapa**  
telebista

**BIDEO PRODUKZIOAK**

**Promozio bideoak**

Irudi on batek, dena erraten duelako eta irudi batek mila hitz baino gehiago balio duelako, bideoa da, gaur egun, zuk behar duzun erakusleihoa.



**Bideo industrialak**

Zure enpresaren lana, jarduera eta instalazioak erakustera emateko, euskarri ezinhobea prestatuko dizugu

**Bideoteka zerbitzua**

Zure elkarre edo erakundeak antolatzen dituen ekitaldi guztiak bideoan gorde itzazu. Aldiro kopiak eskatu beharrean, kontratatatu zerbitzu hau.



**Enkarguzko grabaketak**

Edozein ikuskizun, zure gustora grabatua. Antzerkia, kontzertuak, dantza, bestak, bertsoak, kirola, hitzaldiak, ospakizunak ...



**ESKATU AURREKONTUAK**

**kulturkari**  
herriko etxeko plaza 1  
31780 BERA (Nafarroa)

tfnoa: 948 631188  
fax: 948 631291  
kulturkari@euskalnet.net



**elektrizitate industrial**

**Instalazio eta muntaia  
elektrikoak**

**Mantenimendua**

**Automatismoak**

**Iluminazioa**

Amaiur 2, behea  
Sakelekoa: 686 466 865  
31700 ELIZONDO

Artekale 22, behea  
Tel. eta faxa: 948 301 025  
Sakelekoa: 686 466 866  
31195 BERRIOZAR (Nafarroa)

Argazki bakoitzarekin batera 40 Ptako 13 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira ttipi-ttapa telebistan eta aldizkarian agertuko. Argazkia itzultzeko sobre bat eta helbidea ere bidali.

**Argazkiak berreskuratzeko, bidali sobrea zure helbidearekin.**



**IRAKI MIRANDA GARCIA** uztailaren 10ean lehengo urtea beteko du. Aita eta amaren partetik zorianak!



**EMILIO ZABALA EZKURRA** doneztebarrak 7 urte bete ditu uztailaren 6an. Zorianak ama, atta eta Elenaren partetik.



**IRAKI TELLETXEA IRIBARREN** doneztebarrak uztailaren 13an beteko ditu 13 urte. Zorianak eta musu handi bat, familia.



**ANGEL IRIBARREN IRIBARRI** doneztebarrak uztailaren 14an bete zituen urteak. Zorianak Iñaki, Josu, Ane eta Peio A.



**JUANA TELLETXEA URRUTIA** arraioztarrak uztailaren 9an bete zituen urteak. Zorianak eta musu handi bat Iñaki, Josu, Ane eta Peio A.



**ELOY GARCIA** uztailaren 18an urteak bete zituen. Zorianak gurasoak, anaia Daniel eta Eratsungo familiaren partetik. Ez daieela izan hain bitxoa!



**OIER ETA MARKEL ITURRIA** etxalartarrak uztailaren 23an eta abuztuaren 22an, 6 eta 2 urte beteko dituzte. Zorianak atta eta amaren partetik.



**BEÑAT IRAZOKI ARBURUAK** uztailaren 12an 10 urte bete zituen. Zorianak Ainhize, atta eta amaren partetik.



**PATXI CASTILLO** beratarrak 9 urte beteko ditu uztailaren 28an. Zorianak atta, ama eta Mikelen partetik. Aupa gozozalea!



**NAROA ETXARTE** lesakarrak 4 urte beteko ditu abuztuaren 18an. Zorianak Lesakakako familia eta bereziki attaren partetik.



**IMANOL MAYORDOMO IRIGOIEN** beratarrak 3 urte bete ditu uztailaren 25ean. Zorianak Berako osaba-izeba, Xabier eta Beñaten partez.



**MAIALEN IANTZI** berroetarrak 8 urte bete ditu uztailaren 13an, zorianak gure pottokina! Kasu opari'en pisua-rekin eta ongi pasa Menorran.



**LEIRE PARRA ENETERREAGA** lesakarrak uztailaren 19an 5 urte bete zituen. Zorianak familiaren partetik.



**ANE BERASAIN** beratarrak uztailaren 25ean 4 urte beteko ditu. Zorianak amaixi, amoi'a eta familiaren partetik.



**MIREN ELORTZA** doneztebarrak eta **MAITE LATASTE** paristarrek urteak bete dituzte uztailaren 29 eta uztailaren 4an. Zorianak Lesaka eta Pariseko familiaren partetik.



**MAIDER LATASTE** paristarrek urteak bete ditu uztailaren 7an. Zorianak Lesakako eta Pariseko familiaren partetik.



**XABIER LARRETXEA ALTZUGARAI** lesakarrak urtea beteko du uztailaren 29an. Zorianak Xuban, ama, aita eta familiaren partetik.



**JOSU ELIZONDO GOIA** lesakarrak urtea beteko du abuztuaren 15ean. Zorianak atta, ama, aitaxi eta amaxiren partetik.



**MIKEL AGORRE IPARRAGIRRE** igantziarrak 5 urte beteko ditu abuztuaren 9an. Zorianak familiaren partetik eta 5 mu-xu txirindulari.



**UXUE ANTIZAR IRATZOKI** beratarrak 3 urte beteko ditu abuztuaren 1ean. Zorianak eta muxu handi bat Nerea, aita eta amaren partetik.



**ERAUT IPARRAGIRRE ZINKUNEGI** etxalartarrak 8 urte beteko ditu uztailaren 27-an. Zorianak eta muxu bat Aimar, atta eta amaren partez.



**OIER MITXELENA AROZNAK** abuztuaren 10ean urtea beteko du. Zorianak Lesakako amabi eta Berako lehengusua Beñat eta Olatzen partetik.



**OIER MITXELENA AROZNAK** abuztuaren 10ean urtea beteko du. Zorianak Lesakako izeba-osaben partetik. Muxu handi bat



**ANA BENGOETXEA IRIGOIEN** urdazubiarrak 11 urte beteko ditu uztailaren 27an. Zorianak Mari Joseren partetik. Aunitz urtez!



**SARA MARI TXALAR SALABERRI** igantziarrak 5 urte beteko ditu abuztuaren 5ean. Zorianak eta muxu handiak Agume, atta eta amaren partetik.



**AITZIBER ITURRIA GARMENDIAK** uztailaren 30ean argazkian baino urte batzuk gehiago beteko ditu. Zorianak familiaren partetik.



**OLAIA MATXIKOTE SEIN** igantziarrak uztailaren 21ean 9 urte bete zituen. Aunitz urtez Xabat, atta, ama eta amaxiren partetik.



**AIMAR TELLETXEA GALARREGI** iruitarrak abuztuaren 25ean 2 urte beteko ditu. Zorianak Berako familiaren partetik.



**PAULA SAN MIGEL GALARENA** Arrasateko neskarik jatorrenak, uztailaren 19an 6 urte bete ditu. Zorianak ama, aita eta Beñaten partetik.



**PAULA SAN MIGEL GALARENA** zorianak zure 6. urtebetetzean Doneztebeko atautxi eta amatxi eta Oierregiko atautxi eta amatxi-aren partetik.



**AINHOA GOÑI PETRIRENA** beratarrak 24 urte beteko ditu uztailaren 29an. Zorianak Joanes eta Nahiaren partetik.



**MADDI SESÉ AGARAK** abuztuaren 10ean 9 urte beteko ditu. Zorianak pottoka, aunitz maite zaitugulako atta, ama eta Aranbaxaren partetik.



**MIKEL ALTZURI MAKUSO** aurtiztarrak 4 urte beteko ditu abuztuaren 6an. Zorianak eta muxu bat losu, Olaia eta familiaren partetik.



**OIER MITXELENA** beratarak eta **AMPARO ETXEBERRIA** urroziarrak, abuztuaren 10 eta 22an, urtea eta 59. urte beteko dituzte. Zorianak eta muxu handi bana, aita, ama eta ataubiren partetik.



**VANESSA** lesakarrak, abuztuaren 8an 5 urte beteko ditu. Zorianak eta muxuak, ama, aita, amonak, aitonak eta osaben partetik.



**IRAKI** 2 urte bete zituen uztailaren 15ean. Zorianak gurasoak, ataubi, amabi, Elena, Josebo eta Emilioren partetik. Aupa tururu.



**JOANA GRAZIARENA HUALDE** doneztebarrak urtea bete zuen uztailaren 20an. Zorianak eta muxu handi bat familiaren partetik.



**NAXARA JAUN SARATS SANTXOTENA** k uztailaren 21ean urtea bete zuen. Zorianak familiaren partetik



**ANE ETA IDOIA IPARRAGIRRE OIARTZABAL** irundarrek uztailaren 27an 10 urte beteko dituzte. Zorianak familia osaren partetik, bereziki Oihaneren partetik.

**NORBAIT ZORIONTZEKO,**

**BIDALI BEREARGAZKIA, TESTUA ETA 40 PEZETAKO 13 SEILO TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:**

ttipi ttapa • Herriko Etxeko Plaza, 1  
31780 BERA (Nafarroa)

# ORDOKI

## ALTZARIAK

Estilo ugariako mogleak  
kortinak, lanparak...  
eta etxerako osagarriak

Larunbat goiz eta arratsaldez irekia



**O**rain erakustoki berria.  
Etorri gure modeloak  
erosoago ikustera.

### ERAKUSKETA

Bitina 30 eta Plaza Zaharra 26

### SALTOKIA

Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948

637760

NA-31780 **LESAKA**

## Zeramika eta bainuen erakusketarik ikusgarriena




**alkain**  
zeramikak eta bainuak  
Euskal Herriko  
preziorik hoberenak  
Asteleko-ostirala: 9:30 - 12:30 / 14:30 - 19:30  
Larunbatetik: 9:30 - 12:30



**alkain**  
zeramikak eta bainuak

IRUN eta HONDARRIBIA artean  
(aeroportu ondoan) Mendelu Poligonoa  
Tfnoa: 943 64 52 54 / Faxes: 943 64 58 55



NAVARRA

CAN

*Besta  
Zoriontsuak!*

CAJA  NAVARRA